

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko azaroaren 13a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lesaka • Feriak ospatzera jende aunitz hurbilduko da gaur herrira.

Blanca Oria • «Gogoeta bultzatu nahi du 'Artyco'-k».



**margotzen maisua izan
zen gizon ona**

Javier Ziga (1877-1960) margolari iruindarra ezagutu zutenek berean maisua izan zen gizon ontzat dute. Bizi izan zen garaiaren pintatzaile kostunbrista, Espainiako Gerra Zibilean jasandako kartzelak erdibidean utzi zuen haren lana. Hainbat tokitan sakabanatua dagoen obraren erakusle bat besterik ez bada ere, egunotan Iruñean ikusgai da Zigaren pintura. Aspaldian behar izan zuen omenaldiaren lekuko.



Iruñea • Auzo eta kale izenak onartu dira

Udaletxeak behin betiko baietza eman beharko du batzarrean

Hiriburuko auzo eta kale izenak onartu berri ditu Toponimia batzordeak. Txosten mardulak Iruñeko Udalbatzaren behin betiko baietza behar du. Batzordeak egindako ekarpen berriak onartzen badira, hainbat kalek, plazak edo parajek izen berriak hartuko dituzte.

PORTALEPEKO TXOKOA EDOTA Zugarrondoko plaza izenak ohikoak izanen dira aurrerantzean, baldin eta Toponimia Batzordeak egindako kale, auzo eta parajeei buruzko txostena onartzen badu Iruñeko udalbatzarrek. Aho batez onartutako proposamenak kale izendegia eta azpiegitura askoren (zubi, jauregi, monumentu) euskarazko deiturak ere jaso ditu. Iruñeko udaletxean euskara bultzatzeko asmoz egindako ordentza baten haritik sortu zen Toponimia Batzordea, joan den urtean. Batzordean gaiarekin zerikusi duten erakundeen ordezkariak daude: bi unibertsitateetako kideak, Gobernuko zein udaletxe-ko artxiboetako arduradunak, Euskaltzaindiko ordezkari bat, eta udaletxe-ko euskara teknikaria zein itzultzailea. Horrela, Iruñeko auzo, kale eta azpiegiturak deitzeko irizpideak finkatu ditu, gaztelaniaz zein euskaraz.



Proposamena onartuko balitz Navarrieriako plazak Zugarrondo izena hartuko luke aurrerantzean.
● OSCAR MONTERO

Adibidez, auzo deiturek grafia bakarra hartuko dute aurretik gaztelaniazko zein euskarazko deiturarik ez badute, behinik

behin. Hala, euskarazko toponimoak euskaraz idatziko dira (Etxabakoitz, Arantzadi) eta erromanikoak gaztelaniaz (La Ta-

conera). Kale izendegiari dagokionez, berriz, gaztelaniazko erabilera toponimoen deitura ofizialak sartu dira. Era berean, euskaraz zein gaztelaniaz zubien izenak eta Argako Plana Orokorrak hartzen dituen tokien deiturak bildu ditu proposamenak. Mikel Velasco Toponimia Batzordeko kidearen irudiko, aldaketa nabarmenena euskaraz izendatuko diren kale izenek izanen dute. Hainbat kaleri zuten gremioaren izena ezarriko baitzaie berriro ere. Horrela, Zapateria kalea Zapataridinda izenez ordezkatzera proposatzen da.

Hartutako erabakiekin Toponimia Batzordeak aldatu baditu ere udalbatzarrek 1979an onartutako irizpideak, Nafarroako Gobernuaren gaian onartutako legediaren arabera eta jadanik zeuden dokumentuekin lan egin du. Dena dela, kale, auzo edo azpiegitura berriei izenak jartzeko garaian, lehen-tasuna izanen dute hiriburuko toponimo, leku eta parajeen deiturek zein Nafarroako ibai, mendi eta monasterioetakoek. Bestalde, batzordea ez da pertsonen izenak paratzearen aldekoa, ezarri nahi den deituraren eramaileak giza balioen alde lan egin ez badu, behintzat. Halaber, Toponimia Batzordeak Jose Luis Molins Iruñeko artxibatzailea izendatu du euskaraz eta gaztelaniaz izen berriak proposatzeko.

→ Irene Arrizurieta

Zuzenketa:

Iragan asteko Nafarkarian, Esther Zubillaga bezala aurkeztutako enpresari gaztea eglaz Esther Zubeldia zen, okerrak zuzenduz eta barkamena eskatuz.

→ Urko Aristi

Gaintza

Inguruko azken jaiak

ABUZTUAREN AKABERAN, inguruko ia jai guztiak bukatuak direla eta, sanmartinetako itzaropena geratu ohi zaie araztarrei, baina txerri guztiei bere San Martin eguna iristen zaien bezala, festa garaia ere iristen zaio amaiera. Hori, Araitz-Beteluri dagokionez, asteburu honetan gertatuko da, Gaintza jaiak ospatzen baitira.

Egia esatearren, asteazkenean hasi ziren Gaintza-ko jaiak, herriko patriaren eguna baitzen hilaren 11.a. Santuaren ohorezko meza nagusia eta trikitixa izan ziren orduan. Baina egunbete-ko atsedenen ostean, gaur helduko diote berriz gaintzarrek jai egitarauari. Eta nola, gainera. Mahai inguruan bilduko dira, lehenik, herritar guztiak, herri afarian. Gero, dantzaldia, Oroitzapen taldearekin. Eta gaupasaren amaieran, berriz, txokolatea.

Bihar, herriko txikienak izango dira protagonista: 17:00tan urteroko ume jo-koak hasiko dira. Gero, gauean, nagusiagoen lekukoa, Oroitzapen taldearekin egingo den gaupasan.

Igandean, mezaren ostean, bertso saioa izango da. Bertsolari gazteak ariko dira herriko ostatuan bertako seme Oskar Estangak jarritako gaiari helduz. Izen bereko beste bat ere ariko da jaietan, trikitilariak ere Oskar Estanga baitu izena. Bere bikote lanetan, berriz, Aitziber arreba ariko da.

Hala ere, jaietako gauzarik arrakastatsuen ez dago egitarauan. Ardikiaz ari gara. Jaki hori ospetsua da ingurukoaren artean eta denak izaten dira irrikitan ea norbaitek ardiki goxoa jatera gonbidatzen dituen.

denbora pasa

XAMAR



Sekulan lakat ez ditudan hitzen artean Pirinioak elea dago. Hasteko zaila, aront zaila da ahozkatzeko: Pi-ni-o-ak. Hirugarren silabara allegatzerakoan mihi punta galdurik daukat. Gauza da Aezkoa eta ingurukoak Pirinioetan daudela, omen, eta anitzetan sortzen den elea dugu; hala agertzen da inguruko solas eta erakundeetan: Pirinioko Turismo Partzuergoa, AEK Pirinioa, Pirinioko txahala...

Jada XVII. mendean Axular handiak aipatzen zuen bere Gero famatuan. Mikel Belasko gure adixkideak argituko daugu noizpeit, baina nago ez ote zuen Axularrek berak asmatu.

Barne-kanpo

Sobera akort ez izanik, jendeari, Pirinioetan bizi omen denari alegia, ea *Pirineos* Euskaraz nola erraten zuten hasi nintzaion galdeginez. Inork ez zekien deus zuzen erraten; azkenean *Antsoko bortuak* izan zen erantzunik hurbilena. Supitoki alferrik zela ohartu nintzen, Pirinioak delakoak arrotzak dira izan, orai artio bedere, bertan bizi direnendako. Pirinioen ideia kanpotik begiratzen dutenena da, ez bertakoena; hauek Artzibarren, Orozen, Luzaiden edo Zaraitzun bizi dira, ez Pirinioetan.

Ideietan ere barne-kanpo alorretan murgiltzen gara ardura, eta ohargabeen kanpokoa dena bar-

nekoa bailitza erabiltzen dugu. Konparazioe batera eskola gehienetan, ikastolak barne, gertatzen dena da. Bertze gaien artean Ingelesa, Euskara eta Hizkuntza ematen dira. Ezetz asmatu zeri deitzen zaio Hizkuntza?

Makurrago dena norbaitek Ingelesa, Espainola eta Hizkuntza ematen baditu bere klasean, beti izanen du lankideren bat ez dela hain radikal izan behar erranen dakona.

Ingelesa, Euskara... maiuskulaz? Noiz eskribitu behar da ba, maiuskulaz? Hizkuntzak baino izen propiagorik, zer? Hontan ere gramatika espainolaren arauak kopiatu ditugu.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Ditxosozko alfabetoa

Halfabetoa jarraituz artikulu bat egin behar nuela bururatu zait. Badakizue: moda-modan dagoen eta maila haundiko jarraitzaile pilo dituen txotxolada polit hori. Horrexegatik A letra hartu, hautsa kendu, eta ortografiaren lege sakratuak jarraituz gainontzeko letren aurretik eta gainontzekoak baino haundiagoa jarri dut, hortxe, artikulua-aren hasieran: «Alfabetoa» hitzaren lehena. Beno! -pentsatu dut- orain zer edo zer asmatu behar dut gainerako letrentzat eta kitto. Hortan nengoela, nire Harridurarako, H madarikatua Harro-Harro etorri eta artikulua-aren hasiera Hartu du. E?. Zer da hau?. Saiatu naiz, bai, azalpenak ematen -Hi- esan diot- ez al Haiz konturatzen «alfabetoa» Hitzak ez duela inongo H-rik?, zera, hor oso gaizki zaudela? akats larri bat zarela?. Berak, modu triste xamarrean, maitemintutako Nerabe bat dela esan dit. N letrarekin maitemintu dela, alegia. N letra izugarri maite duela, segitu du, baina N letrak nahiago duela Noruegako Narrazti Nabarrekin Noizbehinkako erlazioak izatea. OI. Gaixoa. Orduan dena ulertu dut eta izugarri larritu naiz. Klaro. Bere buruaz beste egin nahi zuen!. Eta zer bide egokiagoa letra batentzat akats ortografiko larri bat eragitea baino? zer bide egokiagoa jakinda, euskal alfabetoko letra guztiek ongi dakiten moduan, Andoaineko zuzentzaileek duten zorrotztasuna eta kupidagabezia?. Utz nazazu -esan dit gero- zuk bidali artikulua eta kitto, ez dut ezer sentituko, heriotza gozoa izango dut ordenagailu baten pantailan.


Bai zera! -esan diot oihukatzazula txorakeririk egin! N letra ahaztuko duzu!. Ez dit inolako kasurik egin ordea. Andoaineko zuzentzaileengana bueltatu naiz orduan: kupida!. Etzazue H nerabe bihotz kraskatua hii!. Utzi ezazue dagoen lekuan!. Kupida! Egin ezazue suhiltzaileen moduan! zabaldu zuen lona borobila zutabe honen azpian!. Hemendik aurrera zintzo ibiliko naiz, zin dagizuet, ez dut literatura esperimentalik egingo baina salbatu ezazue H nerabea!. Salbatu ezazue nerabea eta nerabearekin batera ...zutabea!.

→ Jon Abri!

Lesaka • Feriak, ortzegunean

Azienda azoka izanen da besta eguneko ardatz nagusia

Elizondo eta Doneztebeko ferien ondoren, heldu den ortzegunean Lesakakoak eginen dira. Egun egiten den bakarra izatera igaro da Lesakako feria.



Behien lehiaketa ez da faltako Lesakako ferian.
• JAGOBA MANTEROLA

1 647AN BORTZIRIETAKO FERIAK egiteko baimena eskuratu zenetik, urtero egiten dira feriak Lesakan. Baserri giroko gizaratek industriari egin dio lekua, eta horrek erabateko aldaketa ekarri du ferietan ere, batez ere parte hartzaileen kopuruari eta salgai paratzen diren tresnei erreparatuz gero. Hala ere, oraindik egiten da azienden erakusketa eta lehiaketa, plazan, eta behiak, zekorrak eta zaldiak izaten dira nagusiki. Bortzirietako baserrietatik etorri ohi dira baserriarrak egun horretan. Bertze gune batean, oraindik mantentzen daa baserriko baliagarriak diren hainbat tresnaren salmenta, eta baita traktore eta makinen erakusketa ere. Lehiaketaren atalean, azienda mota ezberdinetan hainbat sari banatuko da.

Baina Lesakako karrika gehienak bitxikeriaz beteriko postuz gainezka egonen dira. Urterik urte, gero eta gehiago dira arropa, burdini-tresneria, Eguberrietako elikagaiak eta bertzelakoak salgai paratzen dituztenak. Baina horretaz gain, bertzelako ekitaldirik ere izanen da egun osoan.

Herri kirolak bukatutakoan, bertsolarien txanda etorriko da. Euzkitze eta Lizaso ariko dira, gai librean. Horren ondotik partituko dira azienden lehiaketako sariak, eta horrekin batera bilduko dituzte baserriarrek euren aziendak. Bazkaltzeko tenorea berezia izaten da Lesakako etxeetan, eta arratsaldean karrikak berriz ere jendearen topaleku izaten dira, nahiz eta aziendarik ez egon. Hala, Asegarcek pilota partiduak antolatu ditu, azken urteetan bezala, eta baliteke lau t'erdiko txapelketako partidak izatea. Erruz hurbilduko den jendea girotzeko, Basakabi taldeak dantzaldia eskainiko du plazan, iluntzean.

Inguruko herrietan bezala, Lesakan ere feriak bi egunez egiten dira. Elizondon eta Donezteben gaur dira feriak, Malerrekako he-

rrian ortziral eta larunbatez egiten dituzte, nahiz eta egun nagusia ortziralekoa den. Lesakan, aldiz, asteazken eta ortzegunez egiten dira, betiere egutegiari jarraituz. Hilabeteko tartean egiten dira lau herriotan feriak. Baina asteazkeneko ekitaldiak erabat indargabeturik daude. Garai batean jendea erosketak egitera joaten zen ferira, baina, egun, asteazkeneko ohiturak erabat desagerturik daude. Besta berpizteko saioak egin izan dira baina arrunt galduta dagoen ospakizuna da. Hortaz, bada, feriak ortzeguneko ospakizun direla erran daiteke, ia-ia. Udalak berak ere -ferien antolatzailea- apusturik sendoena ortzeguneko besta eguna mantentzearen alde egin du.

Lizarra
•
Emakumea eta literatura mintzagai

LIZARRAKO EMAKUMEEN Asanbladak Maria de Maeztu literatur lehiaketa antolatu du bigarren urtez jarraian. Joan den urteko harrera ona gogoan izanda, aurten, literatur sari banaketaren inguruan, *Emakumea eta Literatura* mintzagai izanen duten hitzaldiak antolatu dituzte Lizarrako Udaleko Emakumearen Zerbitzua-aren laguntzarekin. Gauzak horrela, atzo Arusiyya Al Naluti Tunisiako idazlea aritu zen hizketan. Ekitaldiek hurrengo astelehenean jarraituko dute. Arratsaldeko 19:30etan *Ellas. La historia de las mujeres* liburua aurkeztuko dute kultur etxean IPESeko langileek. Liburuak hainbat emakumek historian egindako lanak, ikerketak eta abar- rarak jasotzen ditu, haien izena eta lana goraiatuz. Azkenik, ostegunean, Cristina Aznar idazle nafarrak idaztea pentsamoldeak eta bizitza adierazteko bide ederra dela aitortuko du. Cristina Aznar New Yorken eta Dominikar Errepublikan bizi izan da eta *La mujer de Lot* liburuaren egilea da.

Hitzaldiak literatur sariaren inguruan antolatu dira, eta emakumearen lana goraiatzea eta bultzatzea dute helburu. Emakumearen sormena eta irudia pizteko asmoz, Maria de Maeztu lehiaketako saridunak nor diren gaur zortzi jakingo da. Orotara hamazazpi lan aurkeztu dira aurten, eta irabazleak ehun mila pezetako saria jasoko du (4000 libera inguru).

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

Zugarramurdiko baserrien afera

Zugarramurdi aldean giro nahasia dago azken aldian, legez Baztangoak diren 58 baserrien afera dela-eta; **Ttipi-ttapa** hamabostekariak Zugarramurdi eta Baztanen arteko auziaren berri jaso du azken zenbakiko orrialdeetan. Aitor Arozenak sinatu artikulua-aren bidez: «Baztango lurrek inguratzen dute ia oso-osorik Zugarramurdi. Honela, legearen arabera Baztangoak diren 58 baserri- tiko bizilagunek Zugarramurdi- n egiten dute bizimodua. Afera aspaldikoa da, baina, zenbait urtez erdi itzalla egon ondotik, udazken honetako haizeak sua harrotu du berriro».

«Baserri hauek Baztandik bereizi eta Zuga-

ramurdira batzeko eskaria aurkeztu du berriki Zugarramurdi-ko Udalak Nafarroako Gobernu-ko Toki Administrazio Departamenduan. Eskariaren oinarri bezala, baserriarrek zerbitzu guztiak Zugarramurdi- tiki jasotzen dituztela aipatzen zen. Horrez gain, Zugarramurdi eta Elizondo artean 25 kilometro daudela eta Otsondoko gaina igaro behar dela adierazten da. Eskari honen berri jakin bezain laster, Baztango Udalak ez-ohiko batzar orokorra deitu zuen urriaren 9an. Batzar honetan, Balleko udal ordezkari-ekin batera, herrietako alkateak eta kuarteletako junter- o-ak bildu ziren. Zuga- rramurdi-ko Udala asmo hauekin segitzeko- tan,

Balleko Udala epaitegietara joateko prest dago».

Ttipi-ttapako artikulua- k azaltzen duenez, aspaldikoa da baserrien afera: «1584an, dagoeneko, Zugarramurdi-ko bizilagunek Baztango herri lurretako urak eta belarrak aprobetxatzeko eskubidea eskuratu zuten. Joan den mendean, Diputazio-ko Estatistika Atal-ak Baztanen barnean sartu zituen 58 baserriak. 1889. urteko martxoaren 19an, erabaki honek sortzen dituen diru kalteen berri jakinarazi zion Zugarramurdi-ko Udalak Diputazioari. Urte berean, baserri horiek zergak ordaintzerakoan, bederen, Zugarramurdi-koak izatea erabaki zuten Diputazioak».

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jovellanosen ekarria gurean II: Euskal Herrira eginiko bidaia Jovellanosen egunkarietan

Jovellanosek eginiko bidaia guztien kontatera berak tajutu egunerokoetan dugu irakurgai. Hamalau dira, zehazki, 1790.eko abuztuaren 20an hasiera eta 1810.eko martxoaren seian bukaera duten Jovellanosen egunkariak. Gijongoak bere seigarren bidatzian zapaldu zuen Euskal Herria estrainekoz, berak deitu «bidaia handia»-an hain zuzen ere. Euskal Herrira eginiko bidazti honen gainekoak bigarren egunerokoan jaso zituen.



ABUZTUAREN 6AN ATERA ZEN Gijondik Avilako prebendadua zen Felipe Posada, Eugenio Acebedo eta Pachín Peón bidaikideen laguntzarekin. Bidaia honen egiteko izan zituen arrazoiak ugariak izan ziren. Alde batetik, arrazoi ofiziala zegoen, hau da, Asturietako ikatzaren kontsumoetarako zeudekeen itzaropenen ikerketa. Godoyek gortetik alden du nahian, mehatzategiaren egoeraren berri jasotzera bidaldu zuen Jovellanosen. Bidenabar, Asturias eta probintzi salbuetsien arteko aldea maila ekonomikoari zegokionean ikertu behar zuen.

Euskal Herrira abuztuaren 16an iritsi zen, Kantauriko itsasertzetik, eta Somorrostro, Portugalete, Sestao eta Barakaldo gibelean utzirik, Bilbon eman zuen lehenbiziko gaua. Zaluzihoakion Jovellanos euskal itzulia, eta hil erdia baizik ez zuen eman hiru probintzietako herri askotatik pasatzeko. Bilbon hiru egun oso eman zituen, Portugalete ere ezagutzeko profiritatu zituenak, eta hilaren 20an bizkai hiritik atera zen Durangori buruz, bidean, Zornotza aldeko Ibarra, Bierna eta Arandiko olategiak bisitatu zituela. Abuztuaren 21ean Durangotik atera zen Ermua, Eibar, Elgoibar, eta Azkoitiarrantza, eta hantxe gaua emanda, 22an Loiola, Azpeitia, Urrestilla, Bidania, Albistur, Tolosa, Billabona eta Hernani izan zituen helmuga. 23an Hernanin izan zen, eta ilunabarrean Donostiara iritsirik, hantxe ere eman zituen bi egun oso, Pasaia, Lezo eta Errenteria begiztatzeko aprobetxatu zituenak. 26an Tolosara abaiatu zen, eta 27an Alegi, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga, eta Antzuolatik pasa ondorean, Bergaran izan

zuen pausalekua. 28an Bergaran izan zen egun osoan, harik eta 29an Gasteizko bidean abian ezarri zen arte, Arrasate, Leintz-Gatzaga, Ulibarri-Ganboa, eta Mendibidik igaroz. Hilaren 30ean Gasteizen izan zen, eta abuztuaren ondar egunean Burgosi belanda, Arifñez eta Argantzu izan ziren Jovellanosek bisitatu azken herri euskaldunak.

Euskal Herritiko itzuli hau deskribatu zuenean, iruzkin politikorik ia ez dago, arras zuhurra agertu zitzaizgun horretan, eta egin zituen aipamenak oro, lehen irakurketan hutsalegi iduri lekizkioke baten bati. Lehen eta behin bidea eta bidea egiteko moduak izan zituen mintzagai: bideen egoera, gurdiak, ostatuak, janaria,...., ohar ugari nekazaritzari buruzkoak, pentsatzekoa denez, nekazal erreformarako entseia igaro zirenak; finean, jendearen berri ere eskeini zigun, gipuzkoar eta arabarren gainetik emakume bizkaitarren garbitasuna zein duintasuna nabarmendu zuela. Zebaitetan iduri lezake Jovellanosen hitz-lau honetan geroagoko subjektibismo erromantikoaren zantzua dagoela, baina beti ere, XVIII. mendeko Jovellanos neoklasikoa da tesuan gailentzen dena, objektiboa, disziplinatua, ordenatua, bertetsua eta betiere arrazoiaren menpe.

Nabarmenezkoa da Jovellanosen gauza guztiekiko erakusten zuen jakinmina, halakoa edo bestelakoa izan ere gaia edo lker atala. Bestalde, benetan miresgarria da Jovellanosen errealitateaz ohartzeko zuen ahalmena eta zorroztasuna, be-

hatze gaitasuna. Aipatzekoa ere zeukan zentzu kritikoa eta edozein gauzari buruz juzkua emateko zuen gaitasuna. Azkenez, bere praktikotasuna eta gauza guztien erabilgarritasuna neurtezko kezka ekar dezakegu azpimarragarri.


Pentsa daitekeenez, Bergaran ez zuen egun oso bat eman arta-jorran, hara bere-bereker joan baitzen Herriaren Lagunen elkarkideekin topo egitearren. Espainiako lehenbiziko elkartzat miresten zuen Deba bailaran eratutakoa, eta elkarkideek ere beren aldetik, Jovellanos izaten zuten begirunea ez zuten ezkutatu.

Bergaran Elkartearen Ikastegia ikuskatu zuen, eta bertan zeuden 120 pertsonen errolda jasotzeaz ezeze, ikastegiaren ikasketa plana osoaren iruzkina egin zuen, egunkarietan gehigarritzat argitaratu zuena. Ikastegian aprobetxatu zuen ikasle zein irakasleekin mintzatzeko. Elkarkideen lanak ere eskeini zizkioten Bergaran, esaterako, Ignazio Luis Agirre-*ren los derechos de un padre* antzezlana, alabaina egun hartan Landazuri historiagilea ezagutu ez izana penatu zitzaion bereziki. Ezagutu zituen artean, orde, Gasteizen eta Tolosan ezagutu Lorenzo Prestamero eta Samaniego bera aipa litezke. Jurrmendiko jauretzean gau osoa eman zuen Samaniegoren lagunartean, eta egindako tertulia goxoan, arabarrak Bilboko desertuaren gaineko bertsoren batzuk irakurri zizkion, beste lanen artean. Seguru da Jovellanos ezin gustorago zegokeela elkarkideen artean. Gazteago zela, Sevillan Olabidek antolatzen zuen tertulian parte hartutakoa baitzen.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Lamien orraze bila

GURE JAKINTZA ETA sineskera guziek, analogia klasikoan dute beren lehen sustraia. Hala, eguzkia bere urrezko errainu luzeekin, deus baino lehen, gure burua da bere adats liluragarriekin. Horra analogiaz, gure buruko adatsek, sinbologia unibertsalean izan duten eragin izugarria. Lehen analogia leienda bihurtuz, esate bateko, Ipar Europako ele zaharretan, munduko gizon guztien ile izpi bana trentzatuz josi behar da poltsa bat, galdutako eguzkia sortzeko.

Hala, gure adats luze eta askeak, ingurumari guzira kiribiltzen diren hari majikoak dira, haizearen (gure orrazerik zaharrenaren) arabera dabilzanak, eta giza izateaz gaindi hegatzten dira izpiritu erratuaren gisan. Eta adatsok orraztu edo atondu ezean, basatia, sorgina, herejea, litzake beti gizona. Hamaita aldiz aditua etxean, «sorgiña dirudi, zimaje horrekin».

Hementxe hasten da ilajearen zibilizazio unibertsala. Edozein gizartetako diziplina batera sartzen denak, nola edo hala, bere adatsak moldatu behar harko ditu. Hala, ekialdeko mundu zaharretik hasi eta berriaraino, ilearen mozkerak eta orrazkerak, nortasun eta jerarkia jakinak sinbolizatuko ditu.

Arauk berdintsuak dira beti: edozein diziplinatar sartzen denak, soldaduak, mojak, esanekoak... ilea moztean, diziplina horrekiko menpekotasuna, sakrifizioa eta beste giza bertute aske guztien ukapena adieraziko du. Ikus «tonsura» hitza hiztegian, eta gogoratu, konparazio batera, azken gerrate zibilean, gure herriskotan, ilea arraso moztuta, buruko painulotako bandera espainola ezarririk, kalerik kale arrastan erabili zituzten emakume abertzaleak, lotsagarriro umilatuak. «El pelo no el cuello» esaten zioten leitzar datorkit gogora.

Halabaina, behin diziplina batera sartu ezker, eta jerar-

kian behetik gora hasi, utzi litezke kalpar-bizarrak luze. Hala, herri askotan, aristokraziak, agintariak, enperadoreak, ilea luze daramate beren nortasunaren eta boterearen adierazle, baina haien menpeko serbitzari guztiek motza. Askotan, erregek, abadek, jauntxoek, ez dute moztzen ilerik, beren nortasuna eta bertutea galtzeko bildurrez.

Eremita batek edo fraile errariak utzi litzake ile bizarrak nahi haina luze eta zikin, jainkoagana luzatzen baitzaizkio beti; baita eskazale, bufoi, juglare edo edozein artistak ere, diziplinaren menpekorik giza-joenak baitira. Baina, kuida, diziplina sakratuaren bati saiheska, deabruagana luzatu eta nahasten diren kalpar bizarrarekin, halakoak beti gaizto, endekatu, hereje, gorri. «Euskara salbo ikusi arte, ez tut kenduko bizarra» Arestik Fideli ikasiasia.

Hori da eskema klasikoa. Hortik aurrera, hasten dira lekuan lekuko eta garaian garaiko mila moda eta orrazkera exotiko. Esate bateko, Nafarroako lege zaharrak honela dio: «Villana casada qui la fiere, si las tocas cayeren en tierra, deve LX sueldos de colonia, dicha dauca». Hona euskal hitz zaharra: *daukari, taq* pertsatik geureganatua. Beraz, ohore guzia galtzen zuen emakume ezkonduak, gonazalaren batek bortxaz tauka kendu ezker.

Aspaldikoa du, beraz, emakumearen adats lehen eta askeak, gizonaren grina erotikokoak ernatzeko lilura sekretua; zergatik estali bestenez? Latineko «nulo is ere» esakeratik omen dator, *nupcia* hitza bera, non emakumeak burua estaltzea esan nahi duen. Poeta zaharrek ere askotan kantatu dute neskatxaren adatsetan trabaturik gelditu den gizonaren bihotza.

Eta nerea?... Begira, udatzaren adatsetan trabatua. Hai-ze sorginduak darabil gogoz haruntz, erreka bazterrean lamia utzitako orraze (sinua alda lezaken sorkari) bila.

Ziria

• Motxorrosolo •

Kontseilu eske

LARRE MOTZEAN JAIKAK. TXIKITASUNA IZERDIZ BLAITU DUGU. EGIN, EGIN DA, egungoa lekuko. Txikiak izan ala ez, jendea ilusioa eskuragarriak diren kontuekin pitzen zailo. Horrenbeste jende eta arloen inplikazioa lortu nahi bada, oinarrian lan itzela egin beharra dago, horrek fruitu iraunkorak ematen baititu. Abenduaren ondarraldiko jaialdiarena unean-uneke azterketa izan daiteke, besterik gabe, eguneroko jardunean kontuan hartzeko moduko datua. Kontseilua eske bazatozkizu, eman.

Blanca Oria ☉ 'Artyco' aldizkariko editorea

«Gogoeta bultzatu nahi du Artycok»

Joan den udan, arte aldizkari berri batek argia ikusi zuen Nafarroan: **Artyco** da, Blanca Oria eta Juan Zapaterren gidaritzapean sortutako proiektua. Eguntan, aldizkariaren bigarren zenbakia plazaratu dute, udazkenekoa. Laster, gainera, Interneten aurkitu ahal izanen dute arte aditu eta zaleek **Artyco**. Aldizkariko editore Blanca Oriarekin mintzatu gara argitalpen berriari buruz.

ARTYCOREN INTERNETEKO EDIZIOA prestatzen ari da Blanca Oria eguntan, hilabete baten buruan aurkezteko asmoa baitute aldizkariko arduradunek. Editoreak, hala ere, lana denbora batez bazter utzi zuen astelehen arratsaldean, EGUNKARIAREN GALDE-REI erantzuteko.

■ **Kalean da Artyco-ren bigarren zenbakia; banpiroak, Txuspo Poyo eta Koldo Chamorroren argazkiak, Derek Jacobiri egin elkarrizketa eta Nafarroako Bideo Jaialdia dira zenbaki berriko gaiak, beste batzuen artean. Aniztasunari garrantzi handia ematen diozue?**

Askotariko aldizkaria da, bai, zalantzarik gabe. Gure asmoa zenbaki bakoitzak gai nagusi bat jorratzea da; bigarren zenbakian, banpiroak aukeratu ditugu, eta aurrenekoan zinema izan zen aldizkariaren ardatza. Aukeratzeko ditugun gaiak ikuspuntu ezberdinetatik aztertu nahi ditugu, hori da gure helburu nagusia: gaiak literatura, zinema edo arte plastikoaren ikuspuntutik azterzea, ikuspuntu ezberdinak eskaintzea. Hala ere, nagusiki arte plastikoaren inguruko aldizkaria dela erran daiteke, eta, ondorioz, elkarrizketek arte plastikoaren munduarekin zerikusia izanen dute beti, edo hori da, behintzat gure asmoa. Noski, ezin dugu ahaztu arte plastikoaren munduan ez dela bakarrik pintura existi-

tzen; bideoa eta irudiarekin harreman duen guztia ere arte plastikoa da. Bigarren zenbakian, adibidez, Derek Jacobiri egin diogu elkarrizketa, Francis Bacon margolariaren rola betetzen duelako bere azken pelikulan; eta La Fura dels Bausen *Fausto* obra aztertu dugu, antzerki talde horren lanak zerikusi handia duelako irudiarekin eta teknologia berriekin.

■ **Aldizkariaren izenak berak argi uzten du esparru zabala bete nahi duzuela.**

Bai, **Artyco** (Artea eta komunikazioa) jarri diogu, izen horrek ongi definitzen duelako aldizkariak zer izan nahi duen. Arte plastikoak ez dira, gaur egun, duela 50 urte zirena; ezin daiteke pinturaz bakarrik mintzatu, askoz gehiago baitira arte plastikoak. Teknologia berrien munduak aldaketa sakona ekarri du arte plastikoaren mundura, eta egun, jada, ezin dira banatu.

■ **Aldizkaria aurkeztu zenuteanean, artisten eta publikoaren arteko zubiak eraiki nahi dituzuela azpimarratu zenuen; hain beharrezkoak dira?**

Argitalpenak dira, askotan, artisten eta publikoaren arteko zubi bakarra. Hilabeteak edo urteak eman ditzake artista batek bere tallerrean lanean, baina, gale-

ria batek edo aldizkari edo egunkari batek lan horren berri ematen ez badu, existituko ez balitz bezala da. Komunikatzeko bide bat izatea funtsezkoa da, oso esparru individualista baita, bestela, artistena.

■ **Artyco, hala ere, ez da arte gida soila. Zer garrantzi du eztabaidak eta gogoetak zuen proiektuan?**

Gogoeta bultzatu nahi du **Artyco**-k. Guk ez dugu dauden erakusketen erakusleho izan nahi, besterik gabe, ez dugu gida soila izan nahi. Aldizkaria hiru hilabetero ateratzeak berak, gaiak beste modu batera jorratzeko aukera eta askatasuna ematen digu. Egunkarietan lekuri ez duten eduki interesgarri asko daude artearen munduan, gauza interesgarri eta on asko idazten ari den jendea. Horri guztiari eman nahi diogu lekua gure aldizkarian.

■ **Arteari eta komunikazioari buruzko aldizkaria izanda, teknologia berrien munduarekin lotua, neurri handi batean, Internetera zabaltzeko asmoa baduzue?**

Bai, hasieratik gure asmoa Interneten sartzea izan da, aldizkariatik at gelditzen diren gaiak jorratu ahal izateko. Interneteko orria prestatzen ari gara eguntan, eta, gure asmoa, hilabete baten bu-

Blanca Oria iruindarra da, eta ederki ezagutzen du komunikabideen mundua, hainbat hedabidetan egin baitu lan azken urteotan. *Navarra hoy* egunkarian, asteburutako kultura gehigarria egin zuen denbora batez, eta Espainiako Telebistako Nafarroako egoitzan, berriz, musika saioak gidatu zituen

Espainiako Irrati Nazionala eta Euskal Tebistan ere hainbat urtez aritu da Blanca Oria, bai eta *Extremadura* egunkarian ere. Nafarroako hiriburura itzultzean, *Revista Navarra de Arte* aldizkaria jarri zuen abian, Juan Zapaterrekin batera.

Gaur egun, **Artyco** aldizkariko editorea izateaz gain, Golem zinemetako aldizkariak egiten ditu Blanca Oriak. **Artyco** proiektu gaztea da oraindik, baina iruindarra kontent da orain artean lortutako emaitzekin. **Artyco**-ren Interneteko orria prestatzen ari da eguntan.

ruan aurkeztea da. Interneten bidez, irakurleen erantzunak jaso nahi ditugu, aldizkariaren iritzia jaso ahal izateko. Halaber, Interneten orria duten artistekin harremanetan jartzeko modu aproposa izan daiteke. Horrek guztiak, indarberritu egingen du aldizkaria.

■ **Artyco aldizkariari buruz hitz egitean, ezinbestekoa da zuen aurreko proiektua gogoratzea, *Revista Navarra de Arte* aldizkaria, alegia. Zergatik utzi zenuen?**

Oso nekatuta geundelako. Bi urtez egin ondoren, utzi egin behar izan genuen. Bi hilabetean behin plazaratzen genuen, baina egunekoari garrantzi handia

ematen genion. Egiten zen guztia jaso nahi genuen, eta, horrek, jorratu nahi genituen gai asko kanpo uztera behartzen gintuen. Murrizta handia genuen, eta ez genuen askatasunik benetan nahi genuenari buruz hitz egiteko. Gustura egiten genuen aldizkaria, baina nekatu egin ginen, eta proiektu berri bati ekitea erabaki genuen. Aldizkari erabat ezberdina egin nahi genuen, bai formatu aldetik, bai lan egiteko moduari dagokionez ere. **Artyco** hiru hilabetero kaleratzen dugunez, nahi ditugun gaiak jorratzeko tarte gehiago daukagu orain.

→ **Eduarne Elizondo**



soslaia

● MIKEL SAIZ

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Teleñeko show

Ez dakit munduan beste inon parlamentario txit goren jaun-andreak bilduko ote diren sagarra sagarra dela, kamioia kamioia edota izarra izar dela erabakitzeke. Eta hori, hartutako lana (dieta barne) ez baita txantxetako izan, bi eguneko saio luze eta nekagarri baten ostean. Baina hemen bertan, Felliniren pelikula batetik ateratakoa ematen duen Nafarroa honetan, bertako folklore eta ezaugarri bereizgarriak bultzatu nahian, gisa honetako saio bat (luma ofizialen arabera biziki interesgarria izan omen dena) asmatu dute. Emaiztarik nagusiena, ezin besterik izan: Nafarroa Nafarroa da. Tautologikoki borobila.

Horretaraino ematen digu herri xeheko biztanle kakajaleoi, gure adimenaren muga hortxe-hortxe izanda ere, A eta A berdinak direla aspaldian ikasi genuen. Nik neuk, esate baterako, pedagogikoki ikasi nuen gure gorbatadunen antz handia zuten Teleñeko maitagarriekin. Horrez gain, eta Kokori esker, eskuina eta ezkerria non zeuden, koloreak bereizten eta abar ikasten nuen telebistaren aurrean. Orain, telezaborrak betirako ezabatu zituela pentsatzen hasia nintzenan, hara non eta haien klonikoak agertu zaizkigu telebistaren uhin foraletan. Peggy, Gustavo, Superkopo, Epi eta Blas, Gailen Munstroa eta lagunek Nafarroako Parlamentuan agertu dira haien betiko abesti eta elkarrizketa irrigarriekin. Bi egunez gozatu ahal izan dugu, ume garaletara itzuli eta ikusi dugu nola gure betiko lagunek, nahiz eta gorbatez jantzita egon, ohikoa zuten umore tantarik ere ez duten galdu. Saio honen ondorioz garbiena teleñeko eta gure alboko jarraitzaileek horren ongi ezagutzen duten beste tautologia baten bitartez laburbildu liteke: hau da hau.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Lizarrak:** Gaztetxean kontzertua eskainiko dute bihar 22:30etan Leihotikan, Noiz-bait eta Hi aitu zak taldeek. Sarrerak 500 pezeta balio du.
- **Zizur Nagusia:** Gozategi taldea kontzertuan gaur, Kultur Etxean, 22:00etan. Sarrerak 600 pezeta balio du.
- **Zangoza:** Paseando a Mr Dixi taldearen emanaldia bihar Kultur Etxean 20:30etan.
- **Iruñea:** David Johnstonek *El mundo de la musica para violoncello* emanaldia etzidamu, Maisonnave hotelean, 20:00etan.
- **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua ostegunean, Gaiarre Antzokian, 20:00etan.
- **Urdulain:** Alboka taldearen emanaldia izanen da gaur, 22:00etan, frontoian.

ZINEMA

- **Berriozar:** Zuloi Alai elkartearen *Laugarren galeriatik*, Bernar eta Txotx laburmetraiak gaur, 20:00etan.
- **Iruñea:** Datorren ostegunean *Chacal* pelikula pantailaratu da 19:45etan Olite zinematan.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoko antzerki taldeak *La zapatera prodigiosa* taularatuko du gaur eta bihar, 21:00etan Nafarroako Antzerki Eskolan. Sarrerak 500 pezeta balio du.
- **Iruñea:** Teatro de cruce taldeak *Maria Sarmiento* lana taularatuko du etzi, NAEn, 20:00etan.
- **Berriozar:** Trokolo taldeak *Mis mitos* lana oholtzaratu du etzi, 19:00etan, Mendialde Eskolan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Gorka Ripodas bidaiariaren *Mexiko: kontraesanek beteriko herrialdea* diapositiba emanaldia 20:00etan Nafarroa Kirol Elkartearen.
- **Doneztebe:** Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsolariak gaur, plazan, 12:00etan.

- **Iruñea:** Mikel Belaskok *Euskarra Iruñerrian toponomiatik aztertuta* hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Kaskallueta elkartearen.
- **Iruñea:** Juanjo Olasagarre *Bizi* puskak liburuaz ariko da ostegunean, 18:00etan, NUPeko 106 gelan.
- **Iruñea:** Peio Monteanoren *La*

muerte, el hambre, la peste y la guerra en la Navarra de los siglos XY y XVI hitzaldia gaur, 19:30etan, Navarrerriako Kultur Zentruan.

► **Iruñea:** Alfonso Martinez Lizarduikoaren *Euskal Zibiltzazioa* liburuaren aurkezpena ostegunean, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Gertu badaude ere, Jainkoak eta Gizakiak ez dute elkar ukitzen, Errealitateak eta Utopiak bezala.



LEKEITIO
INGOMUNICATION PEOPLE